




Eraikuntza %2,3 hazi zen lehen hiruhilekoan

Eraikuntzaren ekoizpena
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Indizea




Iturria: Eustat.

2025eko lehen hiruhilekoan, Euskadiko eraikuntza sektoreko jarduera %2,3 handitu zen, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Bilakaera hori eraikinen atalaren hazkundeak eragin zuen (%3,5), eta obra zibilak ez zuen aldaketarik izan. Enpleguak urte arteko %3,6 egin zuen behera, baina %1,9 igo zen aurreko hiruhilekoaren aldean.

Azalera handietako salmentak %1,1 gehitu dira

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko apirila. indizea




Iturria: Eustat.

Apirilean azalera handietako salmentak %1,1 gehitu ziren 2024ko apirilarekin alderatuta. Salmentak igo egin dira bai elikaduran (%0,7), bai gainerako produktuetan (%2,1). Gainera, azalera handietan eta elikadura kateetan okupatutako langileak %2,4 gehiago ziren 2024ko apirilarekin alderatuta.

Etxebizitzaren gaineko hipotekak %66,8 igo dira martxoan

Etxebizitzaren gaineko hipotekak

Urte bakoitzeko martxoa




Iturria: INE.

INEk argitaratu duenez, martxoan etxebizitzaren gaineko 2.209 hipoteka eratu ziren Euskadin, 2024ko hilabete berean baino %66,8 gehiago. Hipoteka horietan emandako kapitala %65,5 igo da urte artean, 355,6 milioi eurora iritsi arte.

Txikizkako merkataritzaren salmentak %4,4 gehitu dira

Txikizkako merkataritza EAEn

Urte bakoitzek apirila. Indizea



Iturria: INE

INEk berriki argitaratutako datuen arabera, Euskadiko txikizkako merkataritzaren salmentak %4,4 igo ziren apirilean, aurreko urteko hil beraren aldean. 2012tik apirilerako daturik onena da. Sektoreko okupazioak ere urte arteko %0,5eko igoera txikia izan zuen.